

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2019/20

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

1. maila

**IRAKASGAIA**

25947 - Herritarrak eta Administrazio Publikoa

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Zuzenbide konstituzional eta administratiboaren eremuan funtsezko jakintza sustatu nahi da Gizarte Langileentzat erabilgarri izan daitezen. Egunerokotasunean erabil ditzaten etorkizunean. Eredu juridiko-praktikoa jorratu beharizan egoeran dauden pertsonen laguntzeko. Ordenamendu juridikoa menpera dezaten. Ikasgai honek funtzio publikoa nola funtzionatzen duen jakiteko izango zaie erabilgarri.

Gizarte langileak ongizate soziala bermatu behar badu, zuzenbidean eta oinarrizko eskubideen jakintzan jaioa izan behar du.

Estatu sozialean eremuan, administrazio publikoak, eskubide sozialen babesean paper garrantzitsua dauka. Horretarako beharrezkoa da ordenamendu juridikoak eskubideen bermeak ondo zehaztea eta hiritartasuna bere eskubideak babesturik ikus ditzan.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

**DESKRIBAPEN LABURRA:**

Konstituzio- eta Administrazio-Zuzenbidearen eremuan oinarrizko prestaketa orokorra eman nahi dio irakasgai honek Gizarte-Langintzan graduatu nahi duenari, bere etorkizuneko lanbide-jarduna beharizan-egoeran dauden pertsonen zuzenduko zaienez, laguntza-profil horri egoki aurre egiteko gaitasuna eskura dezan. Lanbide-jardun hori ordenamendu juridikoak eratutako markoaren barruan garatu behar da, hain zuzen ere, eta ezinbestekoa gertatzen da ordenamendu horretara eta botere publikoen egitura eta funtzionamendura gerturatzea.

Pertsonaren eta pertsona hori bizi den familia, talde, antolakuntza eta erkidegoen aukera guztiak sustatzen saiatu behar badu gizarte-langileak, haren gizarte ongizate eta bizitza-kalitate ahalik eta handiena lortzearren, ordenamendu juridikoak aurreikusitako dituen eskubideak ezagutu behar ditu hartarako (bereziki azpimarratuz oinarrizko eskubideak eta gizarte-eskubideak) baita eskubide horiek izan ditzaketan ahalbideak ere.

Estatu sozialaren eremuan, preseski, administrazio publikoak zeregin garrantzitsua hartzen du eskubide horiek babesterakoan eta, orokorrean, gizarte-zerbitzuen aurrean. Komeni da, beraz, haren berariazko ezaugarriak, eman ohi zaizkion ahalak eta haiek gauzatzeko moduak bereziki aztertzea, baina, aldi berean, nahitaezkoa da azpimarratzea ordenamendu juridikoak agindutakotik urruntzen denean edo arauak zuzen-zuzenean hausten dituzenean nola kontrolatu ahal den.

**GAITASUNAK:**

- Administrazio publikoaren eremuko arazo juridikoak bestelako arloetakoetatik bereizteko, eta, hortaz, administrazio-jarduna beste subjektuek egindakotik bereizteko eta bereizketa horren ondorioak egoki ulertzeko gai izatea
- Administrazioari buruzko informazio juridikoaren iturriak identifikatu, ulertu eta kudeatzeko gai izatea (administrazio publiko bakoitzari eta administrazio-jardunaren mota bakoitzari aplikatu beharrezko araudia, jurisprudentzia eta eduki juridikoa duten bestelako baliabideak)
- Xedapen orokorrak eta administrazio-egintzak elkarren artean bereizteko gai izatea eta bereizketa horren ondorioak egoki ulertzeko gai izatea
- Administrazio-prozedura baten atalak identifikatzeko eta halako prozedura batean egoki parte hartzeko gai izatea
- Administrazioari zuzenduriko idatziak (eskari, administrazio-errekurtsio) prestatzeko gai izatea
- Kontzeptu juridikoak erabiltzerakoan ahozko nahiz idatzizko komunikazio egokia mantentzeko gai izatea

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. Zuzenbideak Gizarte-Langintzari eskuraturiko ekarpenak
2. Ordenamendu juridikoa Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoan: Estatuaren konstituzio-antolakuntza. Zuzenbidearen iturriak
3. Ordenamendu juridikoaren balore nagusiak eta konstituzio-printzipioak (libertatea, justizia, berdintasuna, giza duintasuna, segurtasun juridikoa, etab.)
4. Herritartasuna: oinarrizko eskubideak eta libertate publikoak. Berdintasuna vs. Diskriminazioa. Inmigranteen eskubideak. Oinarrizko eskubideen bermeak.
5. Konstituzio ekonomikoa eta eskubide sozialak.
6. Gizarte Segurantzaren babesa: ordaindutakoaren arabera prestazioak eta ordaindutakoaren arabera ez direnak
7. Administrazio publikoa eta Administrazio-Zuzenbidea: printzipio orokorrak
8. Herritartasuna eta administrazioarekin dituen harremanak: lotura orokorreko eta bereziko harremanak
9. Administrazioaren ahalak eta administrazio-egintzak
10. Administrazio-prozedura. Administrazio-jardunaren kontrola

\*Irakasgaiko programa xehatua eGELAn argitaratuko da <https://egela.ehu.es/>

## METODOLOGIA

Egin beharreko lanak, ahozko esposaketak, azalpenak, irakurketa ulermena, kasu praktikoaren azterketa eta eztabaidak. Klasean egingo dituzte eta ondorioak elkartrukatu dituzte, kasuari irtenbide desberdinak bilatuko dizkiotelarik. Taldekako eta bakarkako lana sustatuko delarik. Materialak Moodle aplikazioaren bidez igorriko zaie.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

**Legenda:** M: Magistrala  
GL: Laborategiko p.  
TA: Tailerra  
S: Mintegia  
GO: Ordenagailuko p.  
TI: Tailer Ind.  
GA: Gelako p.  
GCL: P. klinikoak  
GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60  
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 40

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluaketa mistoa lehenesten da: burutzen dituzten froga desberdinak (azterketa teoriko-praktikoak) irakasgaiaren azken notaren %60a gutxienez lortu ahal izango da.

Hala dagokionean, azken ebaluazioa: azken proba bakarria burutuz (azterketa teoriko-praktikoa) irakasgaiaren azken notaren %100a lortu ahal izango da.

Klasean egindako taldekako eta bakarkako lan praktikoa notaren %40a izango da.

DEIALDIARI UKO EGITEA.

Ebaluaketa jarraian kasuetan, ikasleak errenuntzia egin dezake eskolak bukatu baino 3 aste lehenago. Irakasgaiaren arduradunari idatzi behar diolarik.

Ebaluaketa jarraian uko egiteak, ebaluaketa finaleko egoeran egotea suposatzen du.

Ebaluaketa finalaren kasuan, azkenengo frogara ez aurkezteak, deialdiari behin-betiko uko egitea suposatuko du.

KONTUTAN EDUKI BEHARREKOA.

Ikasleren batek frogaren batean kopiatuko balu, zuzenean ez gairatua egongo litzateke. Horrez gain izan litzazkeen ondorioz aparte. Momentuan harrapatuta izango balitz, froga berehala geldituko litzateke.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluaketa mistoa lehenesten da: burutzen dituzten froga desberdinak (azterketa teoriko-praktikoak) irakasgaiaren azken notaren %60a gutxienez lortu ahal izango da.

Hala dagokionean, azken ebaluazioa: azken proba bakarria burutuz (azterketa teoriko-praktikoa) irakasgaiaren azken notaren %100a lortu ahal izango da.

Klasean egindako taldekako eta bakarkako lan praktikoa notaren %40a izango da.

KONTUTAN EDUKI BEHARREKOA.

Ikasleren batek frogaren batean kopiatuko balu, zuzenean ez gainditua egongo litzateke. Horrezgain izan litzazkeen ondorioz aparte. Momentuan harrapatuta izango balitz, froga berehala geldituko litzateke.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

- COSCULLUELA MONTANER, "Manual de Derecho Administrativo" Ed.Civitas.
- GARCÍA DE ENTERRIA, E. Y FERNÁNDEZ RODRIGUEZ, T.R. "Curso de Derecho Administrativo (I y II). Ed. Civitas.
- MORELL OCAÑA, I. "Curso de Derecho Administrativo" (I y II) Ed. Aranzadi
- PARADA VAZQUEZ, J.R. "Derecho Administrativo. Parte General y Derecho Administrativo (Organización y empleo público) Vol.I y II. Ed. Pons.
- PAREJO L., JIMENEZ BLANCO, A., ORTEGA, L. "Manual de Derecho Administrativo (I y II). Ariel
- SANTAMARÍA PASTOR, J.A. "Principios de Derecho Administrativo"(I y II). Ed. Areces

### Gehiago sakontzeko bibliografia

- AGUADO I CUDOLÁ, V., Silencio Administrativo e Inactividad, Madrid, 2001.
- AAVV, Territorio y autonomía. El alcance territorial de las competencias autonómicas, Barcelona, 2006.
- ARZOZ SANTISTEBÁN, X., La Obligación de Resolver y Notificar y el Silencio Administrativo, Madrid, 2001.
- BARCELONA LLOP, J., Ejecutividad, Ejecutoriedad y Ejecución Forzosa de los Actos Administrativos, Santander, 1995.
- BELADIEZ ROJO, M., "La vinculación de la Administración al Derecho", RAP, 153, 2000.
- Validez y Eficacia de los Actos Administrativos, Madrid, 1994.
- BOCANEGRA SIERRA, R., Lecciones sobre el Acto Administrativo, Madrid, 2012.
- CANO CAMPOS, T., La invalidez sobrevinida de los actos administrativos, Madrid, 2004.
- CASSESE, S., La globalización jurídica, Madrid, 2006.
- FERNANDO PABLO, M.M., La Motivación del Acto Administrativo, Madrid, 1993.
- GALLEGO ANABITARTE, A., MENÉNDEZ REXACH, A. (dirs.), Acto y Procedimiento Administrativo, Madrid, 2001.
- GAMERO CASADO, E., Los Medios de Notificación en el Procedimiento Administrativo Común, Sevilla, 2001.
- Notificaciones telemáticas y otros medios de notificación administrativa en el procedimiento común, Barcelona, 2005.
- GARCÍA LUENGO, J., El principio de protección de la confianza en el Derecho Administrativo, Madrid, 2002.
- La Nulidad de Pleno Derecho de los Actos Administrativos, Madrid, 2002.
- GONZÁLEZ GARCÍA, J.V., "Globalización económica, administraciones públicas y Derecho Administrativo: presupuestos de una relación", RAP, 164, 2004.
- LASAGABASTER HERRARTE, I., Las fuentes del Derecho, Lete, Bilbao, 2010.
- Las relaciones de sujeción especial, Civitas, Madrid, 1995.
- MARINA JALVO, B., Medidas Provisionales en la Actividad Administrativa, Valladolid, 2007.
- MEILÁN GIL, J.L., Una aproximación al Derecho Administrativo global, Madrid, 2011.
- MIR PUIGPELAT, O., Globalización, Estado y Derecho. Las transformaciones recientes

### Aldizkariak

- RAP: Revista de Administración Pública.
- REDA: Revista Española de Derecho Administrativo.
- RVAP: Revista Vasca de Administración Pública.
- REALA: Revista de Estudios de la Administración Local.
- REDC: Revista Española de Derechos Constitucional.
- DA: Documentación Administrativa.
- RAnAP: Revista Andaluza de Administración Pública.
- RAAP: Revista Aragonesa de Administración Pública.
- RDP: Revista de Dret Public
- REAP: Revista Extremeña de Administración Pública.

RGAP: Revista Gallega de Administración Pública.  
REVAP: Revista Valenciana de Administración Pública.  
REDC: Revista Española de Derecho Comunitario.  
NUE: Noticias de la Unión Europea.  
RADU: Revista Aranzadi de Derecho Urbanístico.  
RGDA: Revista General de Derecho Administrativo. También en versión electrónica. Véase [www.iustel.es](http://www.iustel.es).

#### **Interneteko helbide interesgarriak**

Boletín Oficial del Estado: [www.boe.es](http://www.boe.es)  
Base de datos de legislación y jurisprudencia Aranzadi: [www.westlaw.es](http://www.westlaw.es).  
Eurlex. Actualización legislativa y artículos electrónicos: [www.eurlex.net](http://www.eurlex.net).  
La Ley. Información sobre jurisprudencia, legislación y artículos doctrinales a texto completo: [www.laley.es](http://www.laley.es).  
Boletín Oficial del País Vasco: [www.bopv.euskadi.net](http://www.bopv.euskadi.net).  
Dialnet. Base de datos que recoge las aportaciones doctrinales. Libros y artículos de revistas: [www.dialnet.net](http://www.dialnet.net).  
Base de datos de legislación comunitaria: [www.europaeu.net](http://www.europaeu.net).  
Sentencias del Tribunal Constitucional: [www.tribunalconstitucional.es](http://www.tribunalconstitucional.es).

#### **OHARRAK**

Ikasleei gogorarazten zaie UPV/EHUko etika akademikoari eta ebaluazio-probetan nahiz lan akademikoetan jokabide makurrak eta iruzurrezkoak eragozteko neurriei buruzko Protokoloa bete beharra daukatela: protokolo horrek jarraibide zehatzak ezarri ditu jarduera akademikoa etikoa eta zintzoa izan dadin, aldi berean, ebaluazio-probetan parte hartzean edo lan akademikoak egitean, iruzur, kopia edota plagio kasuak gertatuz gero, zigorrak ezartzeko aukera ere bai.

Ondoko orrialde honetan kontsulta daiteke aipatutako Protokoloa:

<https://www.ehu.eus/documents/2100129/0/6.-+a%29++Protocolo+plagio+-+EUSK.pdf/9305b6c7-919a-97d4-aa66-8564fb728502>